

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

TOLOSAKO UDALA

Iragarkia

Udalbatzarrak, 2020ko urriaren 29an egindako Osoko Bilkuran, hasierako onarpena eman zion Covid-19aren ondoriozko konfinamendu-kasuetan, osoko bilkuretan eta gainontzeko organo kolegiatuetan tokiko ordezkariaren parte-hartze telematika ahalbidetzeko erregelamenduari.

Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen Legearen 49.b artikulua xedatzen duena betez, informazio publikorako ikusgai jarri zen hogeita hamar egunez, iragarpen hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratua izan zen eta hurrengo egunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Informazio publikoko epean ez da inolako iradokizun edo erreklamaziorik aurkeztu, beraz, behin betikoz onartutzat ematen da.

Tolosa, 2021eko maiatzaren 5a.—Alkatea. (3135)

Covid-19aren ondoriozko konfinamendu-kasuetan, osoko bilkuretan eta gainontzeko organo kolegiatuetan tokiko ordezkarien parte-hartze telematika ahalbidetzeko erregelamendua.

1. artikulua.

Osasun-agintaritzak ezarritako konfinamendu-egoeran dauden korporazioko kideek telematikoki eta elektronikoki parte hartzeko eskubidea izango dute osoko bilkuretan, informazio-batzordeetan eta tokiko gobernu batzarrean.

2. artikulua.

Tolosako Udalak beharrezkoak diren baliabide teknologikoak bermatuko ditu eskubide hori gauzatu ahal izateko.

3. artikulua.

Covid-19aren ondoriozko konfinamendu-neurri baten eraginpean dagoen korporazioko kideak dagokion saioan telematikoki parte hartzea eskatu beharko du, behar den aurrerapenarekin, Tolosako Udalaren sarrera-erregistro elektronikoen bidez. Eskaerarekin batera osasun zerbitzuek emandako agiria aurkeztu beharko du. Eskaera Udalbatza zein batzordea gauzatea ahalbidetuko duen behar besteko aurrerapenarekin egin beharko da, Udaleko zerbitzu teknikoek zinegotziaren parte-hartzea ahalbidetuko duten baliabide teknologikoak instalatu ahal izateko.

4. artikulua.

Parte-hartze elektronikoak bermatu beharko ditu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 46.3 artikuluan xedaturiko baldintzak:

— Parte-hartzaileak egiaztatu beharko du bere identitatea, eta estatuko lurraldean dagoela.

— Saioan komunikazioa denbora errealean bermatu beharko da.

— Bermatu beharko da zinegotziaren esku-hartzeak dagokion bilkuren aktan (elektronikoan edo bestelakoan) sartuko direla.

AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

Anuncio

El Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 29 de octubre de 2020, aprobó inicialmente el Reglamento para facilitar la participación telemática de los y las representantes locales en los plenos y demás órganos colegiados, en los casos de confinamiento derivados de la Covid-19.

En cumplimiento del artículo 49.b de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, esta aprobación inicial se ha expuesto a información pública durante treinta días laborales a contar desde el día siguiente al de la publicación de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, para la presentación de reclamaciones.

Habiendo finalizado el plazo de información pública sin que se haya presentado reclamación alguna, se considera aprobada definitivamente.

Tolosa, a 5 de mayo de 2021.—La alcaldesa. (3135)

Reglamento para facilitar la participación telemática de los y las representantes locales en los plenos y demás órganos colegiados, en los casos de confinamiento derivados de la Covid-19.

Artículo 1.

Los/Las miembros de la corporación en situación de confinamiento establecida por la autoridad sanitaria tendrán derecho a participar telemática y electrónicamente en las sesiones plenarias, en las comisiones informativas y en la junta de gobierno local.

Artículo 2.

El Ayuntamiento de Tolosa garantizará los medios tecnológicos necesarios para el ejercicio de este derecho.

Artículo 3.

El/La miembro de la Corporación afectado por una medida de confinamiento derivada del Covid-19 deberá solicitar su participación telemática en la sesión correspondiente, con la debida antelación, a través del registro electrónico de entrada del Ayuntamiento de Tolosa. La solicitud se acompañará el documento expedido por los servicios sanitarios. La solicitud deberá realizarse con la suficiente antelación para permitir tanto la ejecución de la Corporación como de la comisión, para que los servicios técnicos del Ayuntamiento puedan instalar los medios tecnológicos que permitan la participación del/la concejal/a.

Artículo 4.

La participación electrónica deberá garantizar los requisitos establecidos en el artículo 46.3 de la Ley 7/85 Reguladora de las Bases del Régimen Local:

— El/La participante deberá acreditar su identidad y que se encuentra en territorio nacional.

— Durante la sesión se deberá garantizar la comunicación en tiempo real.

— Se deberá garantizar que las intervenciones del/la concejal/a se incluyan en el acta de la sesión correspondiente, electrónica o de otro tipo.

– Zinegotziak berariaz, argi eta garbi eta erraz ezagutzeko moduan adierazi beharko du bere botoaren esanahia.

– Bozketa egin ondoren, bilkurako idazkariak azalduko du bozketaren emaitza.

5. artikulua.

Zerrenda honetako gaien garrantzia kontuan hartuta, distantziaz parte hartzeko aukeratik kanpo geratzen dira:

- a) Toki-erakundea eratzeke osoko bilkura.
- b) Toki-erakundeko alkatea eta lehendakaria hautatzea.
- c) Zentsura-mozioa.
- d) Konfiantza-arazoa.

6. artikulua.

Erregelamendu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Xedapen Iragankorra: hasierako onespina eman ondoren, kide anitzeko organoak gehiengoz ikusten badu xedapen hau aplikatzeko premia larria dagoela eta ordura arte ez bada horren aurkako oharrik edo alegaziorik egin, erregelamendu honetan xedaturikoa aplikatu ahal izango da.

– El/La Concejal/a deberá expresar de forma expresa, clara y fácilmente reconocible el significado de su voto.

– Realizada la votación, el/la Secretario/a de la sesión expondrá el resultado de la misma.

Artículo 5.

Se excluyen de la participación a distancia por razón de la importancia de los temas incluidos en esta lista:

- a) Pleno de constitución de la entidad local.
- b) La elección del Alcalde y del Presidente de la entidad local.
- c) Moción de censura.
- d) Problemas de confianza.

Artículo 6.

El presente Reglamento entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Disposición Transitoria: cuando, tras la aprobación inicial, el órgano colegiado aprecie por mayoría la necesidad imperiosa de aplicar esta disposición y hasta ese momento no se hubiera formulado ninguna observación o alegación en contra, será de aplicación lo dispuesto en este Reglamento.